



**Esp.kodea:** 2024PHEL0009  
**Titularra:** ARRASATEKO UDALA

**Gaia:** 2024ko Lanbideren Enplegua  
Sustatzeko programa: 4 Baso/erreka langile  
peoi

## ALDIBATERAKO KONTRATAZIOA

### 1/ KONTRATAZIOA

LANPOSTUA	PROIEKTUA	JARDUNA	IRAUPEN A
4 Baso langile peoiak	Erreka ertzen garbiketa eta landare inbaditzaileen erradikazioa. Natura bideen sarea eta natura guneen mantenua.	% 100	6 hil.

### 2/ KONTRATATZEKO BALDINTZAK

Hautagaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaile moduan izena emanda dauden pertsona langabeak izatea.
- Deialdia egin eta sei hilabete lehenagoz Debagoiena Eskualdeko udalerrri batean erroldaturik egotea.
- Ezingo dira kontratatu 2023ko ekitaldirako enplegu-sustapeneko toki-ekintzetarako laguntzen deialdian edo 2023ko ekitaldirako EAEko EGF Plus 2021-2027 programa operatiboaren esparruan toki-erakundeek gazteak kontratatzeke laguntzen deialdian kontratatuak izan diren pertsonak.
- B gidabaimena.

### 3/ HAUTAGAIEN AURRETIKO AUKERAKETA

LANBIDEk egingo du hautagaien aurretiko aukeraketa, ezarritako baldintzen arabera

### 4/ HAUTAGAIEN AZKEN AUKERAKETA

Hautagaien azken aukeraketa Udalak egingo du, egokitasun probak eginez eta hautagaiek egiaztatutako merituak baloratuz.

### 5/ EPAIMAHAIA

Hautaketa prozesuko kalifikazio epaimahaia honela eratuko da:

**Epaimahaiburua:**

- Udal teknikari bat edo arlo-burua.

**Epaimahaikideak:**

- Postuari dagokion arloko udal teknikari bat.



**Esp.kodea:** 2024PHEL0009  
**Titularra:** ARRASATEKO UDALA

**Gaia:** 2024ko Lanbideren Enplegua  
Sustatzeko programa: 4 Baso/erreka langile peoi

- Postuari dagokion arloko karrerako funtzionario bat
- Udal funtzionario bat, ordezkaritza sindikalak proposatuta.

**Idazkaria:**

- Udal funtzionario bat.

## 6/ INFORMAZIOA ETA KONTSULTAK

Deialdi honi buruz Udalak hartzen dituen erabakiak (oharrak, aurrez aukeratutako hautagaien zerrenda, azterketak edo elkarrizketak egiteko deialdiak, hautaketa proben emaitzak, eta abar) udaleko web orrian argitaratuko ditu ([www.arrasate.eus](http://www.arrasate.eus)) eta interesdunen eskura jarriko ditu BAZen, Biztanleentzako Arreta Zerbitzuan.

Deialdi honi buruz interesdunek behar duten edozein informazio osagarri jasotzeko, hona jo dezakete:

- **BAZ (Biztanleentzako Arreta Zerbitzua)**

- Arano eta Gartzia maisu-maistra 8
- Tel.: 943 252000
- [baz@arrasate.eus](mailto:baz@arrasate.eus)

## 7/ HAUTAKETA ARAUAK

- **Merituak: (50 puntu)**

- Deialdia egin eta 6 hilabete lehenagoz Arrasaten erroldaturik egotea: 10 puntu
- Euskara: 1 HE egiaztatzea (agiriz edo dagokion proba eginez): 10 puntu.
- 55 urtetik gorakoa izatea: 5 puntu
- Luzaroko langabeak: 5 puntu. Luzaroko langabetzat joko dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaille gisa izena emanda dauden langabeak, gutxienez 360 egunez kontratazioaren aurreko 540 egunetan.
- Emakumea izatea: 5 puntu.
- Diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE/BGDS) titular edo onuraduna izatea: 5 puntu.
- Legezko ezintasun izaera edukitzea, ehuneko 33koa edo hortik gorako elbarritasun maila batekin, eta bateragarria izatea dagokion zeregin eta egitekoak betetzearekin: 5 puntu.
- Lan eskarmentua: Baso lanetan egindako hilabete oso bakoitzeko puntu 1, gehienez 5 puntu. Lanaldi partzialean egindako lanak jardunaldi osotzat joko dira.

- **Probak (50 puntu)**

- *Teoriko-praktikoa:* baso-langile lanbidearen jakintzari buruz: 0-50 puntura baloratuko da eta gutxienez 25 atera behar da aurrera egiteko.